

**8/2018 TXOSTENA, EKAINAREN 21EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.**

**XEDEA: SEGURTASUN-ARRAZOIENGATIK KONFIDENTZIALTASUN-ARAU BEREZIPEAN
DAUDEN KONTRATU DEKLARATUEN GARDENTASUNEAN ESKUMENA
DUEN ORGANOARI TXOSTENA ESKATZEKO DERRIGORTASUNA ETA
TXOSTEN HORI EGITEKO ESKUMENA.**

Aurrekariak:

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak sustatuta, segurtasun-arrazoiengatik konfidentzialtasun-arau berezipean dagoen kontratu bat esleitu nahi da.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 154.7 artikuluari jarraikiz, (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzeko legeak), aurrerantzean SPKL, aukera dago kontratuen sinaduraren inguruko datu batzuk ez argitaratzeko, baldin eta kontratu sekretuak edo erreserbatuak badira edo indarrean dagoen legeriaren arabera segurtasun-neurri berezien bidez egikaritu beharreko kontratuak badira edo Estatuaren oinarrizko segurtasun-interesak babestu behar badira, eta horrela erabakia izan bada SPKLaren 19. artikuluko 2. apartatuko c) letran aurreikusitakoaren arabera. Aipatutako 154.7 artikuluan honako hau adierazten da: <<Edozein kasutan, kontratuaren sinaduraren inguruko zenbait datu ez argitaratzea erabaki aurretik, kontratazio-organoek abenduaren 9ko Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 2013/19 Legeak aipatutako Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak emandako txostena eskatu beharko du. Txosten horretan ezarri beharko da informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ez-argitaratzearekin babestu nahi diren ondasunei gailentzen zaien edo ez, eta hamar egunetan bideratu beharko da. >>.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen hitzaurreak honako hau ezartzen du: <<Autonomia-

erkidegoen eskumenak ahal beste errespetatzeko, espresuki aurreikusten da Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak horretarako prestatutako hitzarmena sinatu duten autonomia-erkidegoetan baino ez izatea eskumena. Hala izango ez balitz, estatuan kontseiluak dituen eskumen berak dituen organo autonomikoaren eskuetan geratuko da.>>.

Euskal Autonomia Erkidegoak ez du Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren hitzarmena sinatu.

Irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren bitartez, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea sortu zen. Aipatutako Dekretuaren zioen azalpenean honako hau adierazten da: *<<Dekretu honen bidez Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen funtsezko eskema operatiboa garatzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, gardentasuna kontrolatzeko...>>*. Aipatutako Dekretuaren 3. artikuluan batzordearen eginkizunak jasotzen dira: *<<Batzordeari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komun edo toki-erakundeetako administrazio publikoen eta euskal sektore publikoko gainerako erakundeen berariazko nahiz ustezko ukatzeei buruz aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 24. artikuluan araututako informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzearen arloan xedatutako aurkaratze araubidea aplikatuz.>>*. Batzordeari ez zaio bestelako funtziorik egotzen, ez funtzio orokorrik, ez SPKLaren 154.7. artikuluan aurreikusitako txostena emateko funtzio espezifikoa ere.

Gobernu-kontseiluak 2017ko uztailaren 11n egindako bilkuran adostu zuen Gobernantza, Gardentasuna eta Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Batzordea sortzea. Erakunde horren funtzioak koordinazioa eta planifikazioa dira eta ez du aholkularitza-funtziorik. Horrez gain, ez da xedapen orokor baten bidez sortu.

Horrenbestez, ez dago SPKLaren 154.7 artikuluan aurreikusitako txostena eman dezakeen organo autonomikorik, ezta Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluarekin sinatutako hitzarmenik ere. Horrexegatik, Kudeaketa Ekonomikoaren

eta Baliabide Orokorren zuzendariak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoko Aholku Batzorde honi eskatzen dio txosten bat ematea eskumena duen organoari, segurtasun-arrazoiengatik konfidentzialtasun-arau berezipean dauden kontratuei buruzko txosten bat eskatzearen derrigortasuna eta aipatutako txostena egiteari buruzko eskumena aztertuta.

Eskumena:

I. - Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.c) artikulua arabera, aholkularitza-eginkizuna betetzen duenean, honako hau egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari, besteak beste: << *Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoaren alorrean haren irizpena eskatzen duten gaiei buruz informatzea; irizpen-eskaera hori kontratazioa kudeatzeko mandatua duten Eusko Jaurlaritzako zuzendariak edo sektore publikoko gainerako erakundeetako legezko ordezkariak egin behar dute, idatziz*>>.

II.- Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzako sail bateko kontratazio-prozedura batean sortutako zalantza bat denez, eta sail horretako kontratazioaren ardura duen zuzendariak egin duenez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua c) letraren barnean kokatzen da zalantza hau.

ALDERDI JURIDIKOEN AZTERKETA.

Lehen.- SPKLaren azken xedapenetako lehenengoaren 3. apartatuan xedatutakoari jarraikiz, SPKLaren 154. artikulua 7. apartatuak oinarrizko legeria ezartzen du. Bertan ezartzen da derrigorrezkoa dela, inolako salbuespenik gabe, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluari txostena eskatzea. Txosten horretan ezarri behar da informazio publikoa eskuratzeko eskubidea kontratu jakin batzuen hainbat datu ez-

argitaratzearekin babestu nahi diren ondasunei gailentzen zaien edo ez, baldin eta kontratu sekretuak edo erreserbatuak badira edo indarrean dagoen legeriaren arabera segurtasun-neurri berezien bidez egikaritu beharreko kontratuak badira edo Estatuaren oinarrizko segurtasun-interesak babestu behar badira, eta horrela erabakia izan bada SPKLaren 19. artikuluko 2. apartatuko c) letran aurreikusitakoaren arabera.

Horrenbestez, ondorio posible bakarra da SPKLaren 154.7. artikuluan eskatzen den txostena urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 79. artikuluan aurreikusitako txostenetako bat dela. Txosten horiek nahitaezkoak dira legezko xedapenen arabera, eta beharrezkoak dira kontratu baten sinadurari buruzko zenbait datu ez argitaratzeko ebazpena emateko. Beraz, edozein kasutan erabakia hartu aurretik eskatuko da txostena.

Bigarrena.- Aurrekarietan adierazi denez, Euskal Autonomia Erkidegoak ez du Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluarekin hitzarmenik sinatu, eta, beraz, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legearen hitzaurrean aurreikusitakoari jarraikiz, aipatutako kontseiluak ez du eskumenik autonomia-erkidego honetan.

Zentzu horretan, komenigarria da Segurtasun Saileko Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren zuzendariak planteatutako arazoari Estatuaren Abokatutzaren 37/15 (R-384/2015) txosteneko gogoetak gehitzea. Ekainaren 27ko 118/1996 eta 1997ko martxoaren 20ko sententzietako jurisprudentzian oinarrituz, honako hau ezartzen du: *<<Aurretik aipatutako konstituzio-doktrina Konstituzioak onartzen dizkion eskumenak erabiltzen ez dituen autonomia-erkidegoren baten kasurako eman badira ere, zuzendaritza-zentro honek uste du doktrina bera aplikatu behar zaiola autonomia-erkidego batek lege batek ematen dizkion eskumenak ez erabiltzea erabakiko balu, eta hori da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legearen kasua.*

Planteamendu bera kontsideratu behar da, Estatuak ezin baitu legez autonomia-erkidegoei esleitutako eskumen material bat bere gain hartu eskumen hori edo gehiago erabiltzen ez direlako; izan ere, Konstituzioaren VIII. Tituluan ezartzen diren eskumen-

banaketaren arauak eraldatuko lituzke. Autonomia-erkidego batek bere eskumeneko gai baten inguruko araudia ezartzea edo ez ezartzea erabaki baldin badezake, askatasun bera aitortu behar zaio lege batek esleitzen dion eskumen exekutibo edo auto-antolaketarako eskumen bat erabiltzen duen ala ez erabakitzeko, Estatuak ordezkatzeko izaeraz eskumen hori bere gain hartu gabe. Horrela da ez dagoelako Konstituzioko 149. artikulua Estatuari gordetzen dizkion eskumen-tituluen zerrendan autonomia-erkidegoek beren eskumenak ez erabiltzeagatik autonomia-erkidegoak ordezkatzeko eskumen-titulurik>>.

Aipatutako 37/15 (R-384/2015) txostenaren ondorioetako lehenengoan, Estatuaren Abokatutzak adierazten du: <<Autonomia-erkidegoren batek Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legearen laugarren xedapen gehigarria garatu izan ez balu, aipatutako Legearen 24. artikuluan aurreikusitako erreklamazioak ebazteko eskumena ez du Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak izango, baldin eta autonomia-erkidegoetako administrazioek eta beren sektore publikoek edo beren lurralde-eremuko toki-administrazioek emandako ebazpenak badira. Salbuespen bakarra litzateke eskumena Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluari eman izana Estatuko Administrazio Orokorrarekin sinatutako hitzarmen baten bidez. Hitzarmen horretan ezarriko dira eskumena hartzeagatik gastuak zein baldintzatan ordainduko dituen autonomia-erkidegoak.>>.

Hirugarrena.- Aurrekarietan azaldutakoa kontuan hartuz, hau da, beren funtzioen artean SPKLaren 154.7 artikuluan ezarritako nahitaezko txostena emateko funtzioa ez dutela hartzen ez Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak, ez Gobernantza, Gardentasuna eta Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Batzordeak, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoak bere eskumena Euskal Gardentasun Kontseiluaren bitartez erabiltzea. Bestela, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea sortzeko irailaren 13ko 128/2016 Dekretua aldatu liteke. Horrela, espresuki esleitu lekieke batzorde horri SPKLaren 154.7 artikulua eskatzen duen nahitaezko txostena emateko eskumena. Beste aukera bat litzateke eskumen hori beste organoren bati ematea, esate baterako, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.

Aurretik aipatutako guztiagatik, 2018ko ekainaren 21ean Batzorde Iraunkorrean bilduta, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak aho batez onartu zuen honako

ERABAKIA

Segurtasun-arrazoiengatik konfidentzialtasun-arau berezipean dauden kontratu deklaratuengandik gardentasunean eskumena duen organoari txostena eskatzeko derrigortasunari eta txosten hori egiteko eskumenari buruzko informazioa ematea:

SPKLaren 154.7. artikuluan eskatzen den txostena urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 79. artikuluan aurreikusitako txostenetako bat da. Txosten horiek nahitaezkoak dira legezko xedapenen arabera, eta beharrezkoak dira kontratu baten sinadurari buruzko zenbait datu ez argitaratzeko ebazpena emateko. Horrenbestez, edozein kasutan txostena erabakia hartu aurretik eskatuko da.

Beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoak bere eskumena Euskal Gardentasun Kontseiluaren sorreraren bitartez erabiltzea. Bestela, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea sortzeko irailaren 13ko 128/2016 Dekretua aldatu liteke. Horrela, espresuki esleitu lekieke batzorde horri SPKLaren 154.7 artikulua eskatzen duen nahitaezko txostena emateko eskumena. Beste aukera bat litzateke eskumen hori beste organoren bati ematea, esate baterako, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.

Aurretik aipatutakoa egin ezean eta kontuan hartuta Gobernu Onaren Kontseiluak ez duela autonomia-erkidego honetan eskumenik Euskal Autonomia Erkidegoak eta aipatutako kontseiluak ez dutelako sinatu Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legearen hitzaurrean aurreikusitako hitzarmenik, autonomia-erkidego honek dagokion hitzarmena aldeztu aurretik sinatu beharko du SPKLaren 154.7 artikuluan eskatutako txostena aipatutako kontseiluari eskatu ahal izateko.